

**Ariketa hau test motako jarduera bat da.  
Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta  
bakarra da zuzena.**

1. Laneko arriskuen prebentzioak honetarako balio du:

- a) Lanaren ondoriozko istripuak eta gaixotasunak saihesteko.
- b) Enpresek kutsaduran duten eragin negatiboa murrizteko.
- c) Legearen aurka doazen ekintzak gutxitzen saiatzeko, adibidez, lapurretak.

2. Enpresak ezin baditu laneko arriskuak erabat saihestu:

- a) Langileak informatu behar ditu.
- b) Ez ikusiarena egin behar du.
- c) Ebaluatu egin behar ditu, ahalik eta gehien murrizteko.

3. Zeri deitzen zaio NBE?

- a) Norberak lanean bere osasuna babesteko dituen ekipamenduei.
- b) Enpresak langileak babesteko diseinatzen dituen planei.
- c) Arriskuen babeserako Europako ekipamenduei.

4. Elementu hauetatik, zein da norbera babesteko bitarteko bat?

- a) Labana bat.
- b) Oin-punta sendotutako zapata bat.
- c) Poltsa bat.

5. Enpresaburuak honako hauen berri eman eta kontsultatu behar die langileei :

- a) Segurtasunerako eta osasunerako arriskuak.
- b) Babes- eta prebentzio-neurriak eta -jarduerak, larrialdi-neurriak eta lehen sorospenak.
- c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.

6. Laneko instalazioetan arriskua dagoenean pertsonak leku seguruan jartzea:

- a) Zaintzea.
- b) Ebakutzeara.
- c) Atxikitzea.

7. Enpresak langileen osasuna zaindu behar du horretarako  
\_\_\_\_\_ osasun probak egiten dira:

- a) Nahitaezko
- b) Borondatezko
- c) Enpresaren araberako

8. Noiz egiten dira proba medikoak?

- a) Egunero.
- b) Hilabete guztietan.
- c) Lanaren hasieran eta ondoren epe jakin bakoitzean: 6 hilabete, urtebete, zenbait urte...

9. Legearen arabera, zer da lan-arrisku larria eta berehalakoa?

- a) Langile batek lanetik eratorritako kalte larria jasotzea.
- b) Langileen osasunean kalteak eragin ditzakeen arrisku oso probablea.
- c) Langileen zaintza eta kontrolerako-neurrien multzoa.

10. Langileak arrisku larri eta berehalakoan daudenean edo egon daitezkeenean:

- a) Nahi dutenean eten dezakete jarduera.
- b) Enpresaburuak beharrezko jarraibideak eman behar ditu pertsonak lana modu seguruan gelditu eta utzi ahal izan dezaten.
- c) Aurrekoetatik bat ere ez.

11. Langileen haurdunaldia edo edoskitzea arriskuan egonez gero, enpresaburuak neurri hauek hartuko ditu, besteak beste:

- a) Kontratua etetea.
- b) Baldintzak egokitzea.
- c) Enpresaz aldatzea.

12. Langilearen betebeharra da neurri hauek betetzea:

- a) Makinen segurtasun-mekanismoak ondo erabiltzea.
- b) Proba medikoak egitea.
- c) Aurrekoetatik bat ere ez.

13. Noiz ari gara kargak manipulatzan?

- a) Kargak 3 kilo baino gehiago pisatzen duenean.
- b) 4 kilo baino gehiago pisatzen duenean.
- c) 5 kilo baino gehiago pisatzen duenean.

14. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, babes-baldintza espezifikoak ezartzen dira:

- a) Hamasei urtetik beherakoentzat.
- b) Beren ezaugarri pertsonalak direla eta, lanetik eratorritako arriskuekiko bereziki sentikorrak direnentzat.
- c) Aldi baterako laneko enpresek kontratatutako langileentzat.

15. Legeak Bistaratze-pantailak erabiltzen dituen langileentzat jotzen du:

- a) Pantailen aurrean, eguneko 4 ordu edo astean 15 ordu baino gutxiago lan egiten duen pertsona.
- b) Pantailen aurrean, 3 ordu baino gehiago egunean edo 15 ordu astean lan egiten duen pertsona..
- c) Pantailen aurrean, 4 ordu baino gehiago eguneko edo 20 ordu asteko lan egiten duen pertsona..